

# **GOLDATU 2017-2020**

## **GLEAren Gizarte Eraldaketarako Hezkuntzaren Ekintza Plana**

# Aurkibidea

<b>1. Aurkezpena</b>	<b>3</b>
<b>2. Ildoak eta ekintzak</b>	<b>5</b>
<b>3. Bitartekoak eta baliabideak</b>	<b>12</b>
<b>4. Jarraipena</b>	<b>13</b>

# Aurkezpena

Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziak (GLEA), **(H)ABIAN 2030-Gizarte Eraldaketarako Hezkuntzaren Euskal Estrategiari** (aurrerantzean, **(H)ABIAN 2030**) atxikitzean, konpromisoa hartu du identifikatutako indar-ideiak abiarazteko ekintza-planak prestatzeko eta bere ekintzak estrategia horretan ezarritako aldaketetara bideratzeko.

**(H)ABIAN 2030** estrategia eta **GOLDATU 2017-2020, GLEAren Gizarte Eraldaketarako Hezkuntzaren Ekintza Plana** (aurrerantzean, **GOLDATU 2017-2020**) Euskadiko hezkuntza-arloko zenbait eragilek, bai erakunde publikoek, bai gizarte-erakundeek, topaketarako espazioen bidez aktiboki parte hartzeko prozesuaren emaitza dira. Gainera, prozesuan gizarte-eraldaketarako hezkuntzaren eremuan (GEH) esperientzia praktikoa eta akademikoa duten kanpoko pertsona-talde batek eginiko ekarpena izan da, bai eta zenbait eragilek eginiko dokumentu eta proposamenen analisiaren ekarpena ere.

**(H)ABIAN 2030** estrategiak sustatu nahi diren GEHen prozesuak honela bereizten ditu:

Honelako GEHa: pentsamendu kritikoa eragiten duena, pertsona kontzienteak, ahaldunduak eta arduratsuak sustatzen dituena gizarteari, bizitzari berari eta bizi diren inguruneari dagokienez, eta hartara, bizi dugun errealitatea eraldatzea lortu nahi duen herritartasun globala eratzen duena.

Era berean, emantzipaziorako ikaskuntza sustatzen duen GEHa, jarduteko eta eraldatzeko gaitasuna indartzen duena; tokikoan txertatuta eta globalarekin konektatuta, maila indibidual eta kolektiboan. Horrek esan nahi du honako hauek egin behar direla: (1) mendekotasunak eta asimetriak gainditzea; (2) bakoitzaren eginkizun eta erantzukizunean sinestea; (3) jarduteko eta komunikatzeko gaitasunak garatzea; eta (4) justizia, aniztasuna, bizitzen jasangarritasuna eta ekitatearen alde egitea, egungo sistemaren ordeztu beste batzuk sortu eta sustatuta.

Horretarako, parte hartzeko estrategiak eta egungo erronkei erantzuteko gaitasunak garatzea ahalbidetu behar da, prozesuetan harremanen dimentsioa, subjektibotasuna eta alderdi afektibo-emozionala txertatu behar da, gatazkak indarkeriarik erabili gabe konpondu eta gainditu behar dira eta aniztasunak kudeatu behar dira.

Azterketa eta hausnarketa kritikoak egiten dituzten pertsona eta kolektiboak lortuz, norbanakoetan nahiz gizartean eraldaketak eragin nahi dituzten pertsona eta kolektiboak, eta haien proposamenetan eta harremanak izateko moduetan eskubideak, erantzukizunak, zainketak, aniztasuna eta lankidetzaren txertatzen dituztenak.

**(H)ABIAN 2030** EAEko GEHn inplikaturik dauden eragileentzako inspirazio eta orientabide izan nahi duen esparru-dokumentua da, eta sei indar-ideia ditu ardatz:

1. Herritartasun global iraunkor eta ekitatiboaren alternatibak lortu nahi dituzten eta eratzen dituzten subjektuei laguntzea
2. GEHren ikuspegi politiko-pedagogikoak txerta daitezen sustatzea eta indartzea
3. Eskubideen ikuspegia txerta dadin sustatzea eta indartzea
4. Tokiko-global ikuspegia txerta dadin sustatzea eta indartzea
5. Agente guztien arteko erantzunkidetasuna sustatzea, batik bat, erakunde publikoena
6. Etengabeko ikaskuntza izatea erreferentzia

Lehen indar-ideiak egungo botere-erlazioetan, errealitatean eta norberarengan eraldaketak egitea proposatzen duten subjektuen alde egiten du, gaitasunak sendotzeko, baterako espazioak sortzeko eta egiteko eta jarduteko moduetan aldaketak egiteko etengabeko laguntzaren bidez.

Bigarren indar-ideia GEHren ikuspegi politiko-pedagogikoen sustapenaren ingurukoa da. Horien artean, honako hauek aipatu behar dira: pedagogia kritikoak, parte hartzekoak eta sozioafektiboak –herri-hezkuntzarekin lotutakoak–, bai eta kulturen arteko pedagogia, pedagogia feministak eta bizitzen iraunkortasunekoak ere, eta aniztasunen kudeaketa eta zapalketen interseksionalitatea.

Hirugarren indar-ideiak GEHren elementu nuklear gisa eskubideen ikuspegia sartzea sustatzen du. Eskubideen ikuspegiak unibertsaltasuna, berdintasuna eta bazterketarik eza ditu erreferente gisa, eta bertatik bideratzen dira gizarteko talde ahulenentzako eta baztertuentzako ekintza nagusiak. Besteak beste, honako printzipio hauek nabarmendu behar dira: eskubideak benetan gauzatzea, batik bat talde baztertuenak edo ahulenak, eskubide guztien integritasuna eta interdependentzia, eskubideen titularren parte-hartze aktiboa eta betebeharren titularren kontu ematea.

Laugarren indar-ideia tokiko-global ikuspegiari buruzkoa da; horrek tokiko eta eskualdeetako errealitateen arteko konexioa dakar, eta tokiko jarduketan eta jarduketa globalen eraginaren analisia, eskubide eta erantzukizunei dagokienez. Era berean, GEHren eta garapenerako lankidetzaren arteko harreman berriaz dihardu; harreman hori baterako helburuak dituzten ekimen eta aliantza globalen antolaketan oinarritzen da, estrategiak, eragileak eta tematikak identifikatuz.

Bosgarren indar-ideiak eragile guztien erantzunkidetasuna sustatzea planteatzen du, bereziki erakunde publikoena, GEHren politika publikoa finkatzeko. Hori lortzeko, berezko ekimenak garatu behar dira, politiken koherentzian aurrera egin eta erakundeen arteko koordinazioa sustatu.

Seigarren indar-ideiak ekimen guztiek duten helburu gisa etengabeko ikaskuntza ezartzen du. Horretarako, baterako espazioak behar dira analisi kritikorako eta horietako ikaskuntzak sortu eta, ondoren, praktikaren eta teoriaren artean elkarrizketatik aplikatu.

Estrategian bertan, 2030erako xede izango liratekeen aldaketa batzuk zehazten dira. Aldaketa horiek honako hauek dira:

### Aldaketak GEHren ikusmoldean

- 1. aldaketa.** GEHk (H)ABIAN 2030 estrategiarekin koherenteak diren ikuspegi politiko-pedagogikoak izatea.
- 2. aldaketa.** GEHk ikuspegi etnozentriko, heteronormatibo eta antropozentrikoak gainditzea, eta askotariko subjektu eta agenteak inplikatzea.
- 3. aldaketa.** Eskubideen ikuspegia eta tokiko-global ikuspegia GEHren funtsezko ezaugarria izatea.
- 4. aldaketa.** Garatzen den ikaskuntza-kulturak jardunbideak eralda ditzala eta GEH indar dezala, ahal dela, ekintzarako prestakuntza, ekintza eraldatzaileak eta erakunde hezitzaileen rola indartzeari dagokionez.

### Aldaketak hezkuntza-jardunbideetan

- 5. aldaketa.** GEHren hezkuntza-jardunbideek ikuspegi globala duten tokiko jardunak eta eskubideen ikuspegitik begiratutako tokiko garapenak izatea.
- 6. aldaketa.** GEHren jardunbideetan GEH eta Lankidetzaren helburu berarekin eta partekatutako gaiekin erlazionatzea.
- 7. aldaketa.** GEHren jardunbideetan herritartasun globaleko alternatibak bilatzeko azterketa kritikoa egitea.
- 8. aldaketa.** GEHren jardunbideek pertsona eta kolektiboaren jarduna eta inplikazioa sustatzea alternatiba jasangarri, solidario eta bidezkoak abiarazteko.

### Aldaketak pertsona eta kolektiboetan

- 9. aldaketa.** Pertsona eta kolektiboek jarrera, trebetasun eta gaitasunak garatzea errealitate tokiko-globalari ikuspegi zabal eta kritiko batetik begira diezaioten.
- 10. aldaketa.** GEHko pertsona eta kolektiboek beren protagonismoa beren gain hartzea, desberdintasunak eragiten dituzten arazoiei alternatibak biltzen banaka eta kolektiboan jardun dezaten, eta gizartea inplikatzen eta mobilizatzen gai izan daitezen.
- 11. aldaketa.** GEHko pertsona eta kolektiboek ekimen eta aliantza globalak egituratzea baina helburu berdinekin, eta horretarako estrategia, eragile eta gaiak identifikatzea.
- 12. aldaketa.** Pertsona eta kolektiboek ikaskuntza-prozesuak abiaraztea norberaren hezkuntza-jardunbideetan oinarrituta, eta lortutako ikaskuntzak prozesu berrietan txerta ditzatela eta parteka ditzatela.

## Aldaketak erakunde publikoetan

**13. aldaketa.** Erakunde publikoek GEHrekin koherenteak diren jardunbideak txertatzea eguneroko jardunean.

**14. aldaketa.** Erakunde bakoitzaren gainerako politikekin koherentea izango den GEHko politika publikoa finkatzea.

**15. aldaketa.** **(H)ABIAN 2030** estrategiari atxikitako lankidetzako erakunde publikoen GEHko politikak koherenteak izatea.

**16. aldaketa.** GIHen agenda bat zehazten laguntzea Euskaditik, giza eskubideen ikuspegitik begiratuta.

**(H)ABIAN 2030** estrategiak GEHn jarduteko proposamen honetarako ahalik eta eragile eta agente gehieni egiten die deialdia. Hori horrela, estrategian GEHren agente gisa otsailaren 22ko 1/2007 Legean aipatzen direnak jaso dira: “lankidetzako agente dira garapenerako lankidetzako eginkizunekin lotura berezia duten erakunde publiko edo pribatuak”. Horien artean aipatu beharrekoak dira GGKEak, eskola-elkarteak, Berritzeguneak eta beste hezkuntza-baliabide batzuk, unibertsitateak, komunikabideak, gizarte-mugimenduak, kolektibo feministak, ekologistak, baztertutako biztanleriaren kolektiboak, migratzaileen kolektiboak...

Bestalde, subjektuei laguntzeko asmoa ere aipatzen da. Honako hauek dira subjektu: (i) berdintasunik eza egoeretan pertsona eta kolektibo bakoitzak bete behar duen zereginaren eta zeregin horrek dituen ondorioen inguruko kontzientzia kritikoa eskuratzeko prozesu bat egin dutenak; (ii) tokiko testuinguruan eta testuinguru globalean gertatzen dena interpretatzeko gaitasuna garatu dutenak; (iii) eraldatzeko borondatea dutenak, pertsonak beren errealitatearen protagonistak izan daitezen; eta (iv) beste batzuekin batera errealitatea eraldatzeko ekintza eta prozesu zehatzen sorkuntza sustatzen dutenak.

**(H)ABIAN 2030** strategiaren esparrua erreferentzia gisa hartuta, GLEAk estrategia hori zehazteko hiru ekintza-plan abiaraztea aurreikusi du:

1. 2017-2020 Ekintza Plana: GOLDATU
2. 2021-2025 Ekintza Plana: EREIN
3. 2026-2030 Ekintza Plana: UZTA BILDU

Goldatu, erein eta uzta bildu terminoak aukeratu dira, horietako bakoitzaren berezitasuna laburtzeko. Hala ere, airatzeko, sortzeko eta berritzeko eta praktikan jartzea aztertzeko mugimendu hori aurreikusitako plan bakoitzaren barruan ikusiko da.

Lehen ekintza-plan honetan batik bat goldatu egiten da, lurra ildaskatu, sakondu, eragin, airatu eta, kasu batzuetan, lurra ongarri berriarekin nahastu. Horrela, bada, **GOLDATU 2017-2020** planaren helburuetako bat izango da GLEAk zenbait proiektu eta programaren bidez bultzatu dituen ezagutza eta ikaskuntzetan sakontzea eta ezagutza eta ikaskuntza gehiago eskuratzeko. **GOLDATU 2017-2020** planak ate eta harreman berriak dakartza; hori hasi da egiten, dagoeneko, plana bera prestatzeko prozesuan, eta garapen osoan zehar jarraituko

du. **GOLDATU 2017-2020** planak airatutakoa nahastu eta, beharrezkoa denean, ongari berriarekin nahastea dakar. Helburu horrekin, topaketarako, eztabaidarako eta segimendurako espazioak sustatuko dira eragileen artean, elkar aberasteko. **GOLDATU 2017-2020** plana gauzatzeko aldian, ekimen posibleak identifikatu, sortu eta kontrastatuko dira, horiek izango baitira etorkizuneko planak ekarriko dituzten haziak. Aurretik aipatu bezala, nahiz eta plan honen enfasia goldatzea izan, ereiten eta uztak biltzen joateko sortzen diren aukerak aprobeztatuko dira, GEHren ekimen eta esperientziak bultzatu eta sendotzeko.

**GOLDATU 2017-2020** planak xede gisa honako hau ezartzen du: pertsona eta kolektiboek errealitateari ikuspegi zabal eta kritiko batetik begiratzea, ekintzarako eta ekintza eraldatzaileetarako prestakuntzaren bidez. Zehazki, hainbat eragilek sustatutako GEHren ekimen eta prozesuak bultzatzea eta praktikatik ikaskuntzak sortzea da helburua. Helburua da, halaber, GLEAk GEHren eremuan bere gain hartu behar duen konpromisoaren katalizatzaile izatea, ez bakarrik besteren ekimen finantzatzaile gisa, baita bere prozesuen sustatzaile gisa ere. Horretarako, zenbait ekintza identifikatu dira, eta horiek honako lau ekintza-ildo hauetan batzen dira:

**1. ildo. Ekintzarako prestakuntza**

GEHri prestakuntzaren eta gaitasunen sorkuntzaren bidez egitea ekarpena.

**2. ildo. Ekintza eraldatzaileak**

GEHri mobilizazioaren, intzidentziaren, ikerketaren, salaketaren eta komunikazio hezitzailearen bidez egitea ekarpena.

**3. ildo. Erakunde hezitzailea**

GLEAk GEHri eginiko ekarpena, Eusko Jaurlaritzaren barruan eta beste erakunde batzuekin.

**4. ildo. Ikaskuntza-kultura**

GEHri ekarpena egitea, hausnarketaren eta elkarrekiko ikaskuntzaren bidez.

## 2. 2017-2020 Ekintza Planaren ildoak eta ekintzak

### 1. ildoak. Ekintzarako prestakuntza

Gizarte Eraldaketarako Hezkuntzari prestakuntzaren eta gaitasunen sorkuntzaren bidez egitea ekarpena

Gizarte-eraldaketarako prozesu pertsonalak eta sozialak behar dira, aldi berean. Eraldaketan inplikaturik eta konprometiturik dauden pertsonak behar dira eta, horretarako, prestakuntza-prozesuak behar dira; prozesu horiek gaurkotatzen erantzun behar diote, tokiko eta globala lotu behar dituzte eta koherenteak izan behar dute, bai edukietan, bai metodologietan, lortu nahi den eraldaketarekin.

Ekintza eraldatzaileetan inplikaturik pertsona askok prestakuntza-prozesu batetik abiatuta egin dute; prozesu horren bidez, errealitateari ikuspegi zabal eta kritiko batetik begiratu diote, horren aurrean argumentarioa eta posizionamendua garatu dituzte, bai eta, bai bakarka bai kolektiboan, dagokien erantzukizuna eta protagonismoa beren gain hartu eta errealitatearen gainean aldatzeko jarduteko gaitasun, trebetasun eta eskumenak ere.

Prestakuntza-prozesu horiek ez dira abiapuntu bakarra ekintza eraldatzaileetan inplikatzen, baina badira aldatzeko- eta ahalizate-prozesuaren zati iraunkorra. Prestakuntzarik eta hausnarketarik gabeko ekintza mugatua da, eta errealitatearekin eta ekintzarekin loturarik ez duen prestakuntza, batzuetan, ez die pertsonen egonezinei erantzuten.

Ildo horretan, GEHetan eta hezkuntza formaleko, ez-formaleko eta informaleko eremu guztietan inplikaturik eta/edo interesaturik dauden subjektu eta eragile guztietan prestakuntza eta gaitasunak sortzea sendotzen duten ekintzak proposatzen dira.

#### 1.1. Prestakuntzarako eta gaitasunak sortzeko ekimenak bultzatzea

GLEAk jarraituko du gizarte-eraldaketara bideratutako ikuspegiei (ikuspegi politiko-pedagogikoak, eskubideen ikuspegia, tokiko-global ikuspegia, genero-ikuspegia...) erantzuten dieten eta alternatibak eraikitzen dituzten subjektuak sendotzen dituzten prestakuntzarako eta gaitasunak sortzeko ekimenak sustatzen. Era berean, lankidetzaren eraldatzaileko jardunbideetan GEHren ikaskuntzak eta ikuspegiak sartu ahal izateko ekimenak sustatuko ditu. Hori zenbait tresnaren bidez egingo da, eta horiek egokitu egingo dira, **GOLDATU 2017-2020** plana bideratzen duen esparruari, alegia **(H)ABIAN 2030** estrategiari erantzuteko; bertan, besteak beste, metodologia politiko-pedagogikoak, tokiko-global ikuspegia eta giza eskubideen ikuspegia lehenesten dira.

Ekintza horren esparruan, ekimenei segimendua egiteko bisitak egingo dira eta antolatzen diren jardueretan parte hartuko da. Gainera, esperientzia horietako batzuk hautatuko dira, hausnarketarako eta trukeko espazioetarako.



## 1.2. Ahalduztzeko estrategia positiboen jardunaldiak

Jardunaldi horiek aukera bat dira eragile berrietara zabaltzeko eta, horrela, pertsona eta erakunde gehiago elkartzeko. Helburua izango da aztertzen diren tematikak **GOLDATU 2017-2020** planean sustatu nahi diren ekintzekin zerikusia izatea, besteak beste: erakundeetatik giza eskubideen defendatzaileei laguntza ematea, emakumeen aurkako indarkeriari aurre egiteko ahalduztzeko estrategiak, ekintza humanitarioko edo baterako hezkuntzako laneko estrategiak.

## 1.3. Heziketa Topaketa

GLEAk zenbait *Heziketa Topaketa* sustatuko ditu, Eusko Jaurlaritzan tematika eta interes berak dituzten sailekin batera eta, bereziki, Hezkuntza Sailarekin batera. GEHko eragileen (GGKE, eragile hezitzaileak, hezkuntza-sareetako ordezkariak etab.) eta sailekin harremanak dituzten beste kolektibo batzuen arteko topaketarako espazioak dira eta esperientziak eta ikaskuntzak trukatzeko.

Topaketa horien egitura honako hau izango da:

- *Eguneratu*: aztertutako tematikari buruzko informazioa, ikerketak eta erreferentziatzko baliabideak aurkeztea.
- *Esperientziak partekatu*: aztertutako tematikari buruzko esperientzia esanguratsuak trukatzeko.
- *Ikaskuntzak sortu*: GEHren ekimenetan sartzea interesgarritzat jotzen diren ikaskuntzak sistematizatzea.

Lantzeko tematika posibleen artean honako hauek aipa daitezke: baterako hezkuntzako metodologiak, parte hartzeko metodologiak, metodologia berritzaileak, komunikatzaileak, pedagogia kritikoa feministak etab.

## 2. ildoak: Ekintza eraldatzaileak

Gizarte Eraldaketarako Hezkuntzari mobilizazioaren, intzidentziaren, ikerketaren, salaketaren eta komunikazio hezitzailearen bidez egitea ekarpena

Gizarte-eraldaketarako eraldaketako ekintza zehatzak egin behar dira. Ekintza horietan, pertsonak beste batzuekin, beste kolektibo batzuekin edo beste erakunde batzuekin batera batzen dira ekimenetan, hurbileneko errealitatea eta errealitate globala eraldatzen doazen aldaketa txikiak lortzeko. Ekintza horiek pertsonak arlo sozialean eta kolektiboan aldatzeko eta parte hartzeko duten borondatea erakusten dute; zenbait tematikarekin eta errealitatearekin konektatzen dute; eta pertsona, talde eta erakundeetan errealitatea eraldatzeko ezagutu, jardun, zabaldu, ikertu eta eragiteko interesa pitzen dute.

Batzuk ekintza eraldatzaileetan prestakuntza-prozesu batetik abiatuta inplikatu izan dira, besteak beste 1. ildoan deskribatutakoa bezalakotik. Beste batzuk, ordea, errealitatea eraldatzeko mobilizazio- eta intzidentzia-ekintzetan parte hartuz hasi dira (kanpainak, sinadurak, kontsumo kontzientea eta arduratsua etab.), eta, esperientzia horren ondorioz, tematikei edo mobilizazioen inguruko egoerei buruz gehiago ezagutu nahi izan dute. Ondorioz, oso beharrezkoak dira sentsibilizazioko, komunikazioko eta zabalkundeko eta ikerketako ekintzak, informazio kontrastatua izateko, proposamen eraldatzaileak sustatzeko, besteak beste lortu nahi diren aldaketak eta eraldaketak izateko mobilizazio- eta intzidentzia-

ekintzak. Prestakuntza-prozesuen kasuan esan denez, ekintza eraldatzaileak ez dira abiapuntu bakarra ekintza eraldatzaileetan inplikatzeko, baina badira aldaketa- eta ahalduntze-prozesuaren zati iraunkorra.

Horrela, bada, jarraian GEHn inplikatur dauden eragile guztien aldetik ikuspegi pedagogiko eraldatzailea duten proposamenak egiten laguntzeko ekintzak aurkezten dira.

### **2.1. Mobilizazioko, intzidentziako, ikerketako, salaketako eta komunikazioko ekimenak bultzatzea**

GLEAk jarraituko du gizarte-eraldaketara bideratutako ikuspegiei (ikuspegi politiko-pedagogikoak, eskubideen ikuspegia, tokiko-global ikuspegia, genero-ikuspegia...) erantzuten dieten eta alternatibak eraikitzen dituzten subjektuak sendotzen dituzten mobilizazioko, intzidentziako, ikerketako, salaketako eta komunikazioko ekimenak sustatzen. Era berean, lankidetzaren eraldatzaileko praktiketan GEHren ikaskuntzak eta ikuspegiak sartzea sustatzen duten ekimenak. Hori zenbait tresnaren bidez egingo da, eta horiek egokitu egingo dira, **GOLDATU 2017-2020** plana bideratzen duen esparruari, alegia **(H)ABIAN 2030** estrategiari erantzuteko; bertan, besteak beste, metodologia politiko-pedagogikoak, tokiko-global ikuspegia eta giza eskubideen ikuspegia lehenesten dira,

Ekintza horren esparruan, ekimenei segimendua egiteko bisitak egingo dira eta jardueretan parte hartuko da. Era berean, esperientzia horietako batzuk hautatuko dira, hausnarketarako eta trukeerako espazioetarako.

### **2.2. Tokiko presentzia eta globala duten mobilizazioko eta intzidentziako ekimenak bultzatzea**

GLEAk jarraitzen du tokiko presentzia eta globala duten mobilizazioko eta intzidentziako ekintzei erantzuteko ekimen zehatzak bultzatzen. Horien artean zenbait tresnaren bidez bultzatu izan dira gizarte-mugimenduak, besteak beste, Emakumeen Mundu Martxa, Vía Campesina eta Hezkuntzaren aldeko Mundu Kanpaina. Horiekin jarraitzeko eta beste ekimen batzuk sustatzeko borondatea dago, nazioarteko eta tokiko presentziatik tokiko ekimenak eta globalak lotzen laguntzeko.

Era berean, ekimenei segimendua egiteko, antolatzen diren jardueretan parte hartuko da eta bisitak egingo dira. Esperientzia horietako batzuk hautatuko dira, egiten diren esperientzien inguruko hausnarketa- eta truke-jardunaldietarako.

### **2.3. Euskadiko Gazteak Lankidetzan programaren ekintzara hobeto bideratzea**

GLEAk Euskadiko Gazteak Lankidetzan programa babesten du; programak eraldaketaren ideia jaso du. Duela ia 25 urte garatzen da, Eusko Jaurlaritzan gazteriaren arloan eskumena duen zuzendaritzarekin batera.

Ekintza horren bidez, ikaskuntzak sortu nahi dira, hezkuntza-prozesu horren ibilbidetik abiatuta, eta gazteek ekintza eraldatzaileak bilatzeko dituzten eskariei erantzuten jarraitzeko beharrezkotzat jotzen diren hobekuntzak sartu nahi dira. Horretarako, programaren ebaluazio bat egingo da, Euskadiko Gazteak Lankidetzan programak kulturen arteko eskumenei garapenera hobeto erantzuteko, bai eta sentsibilizazioaren esperientziaren eta eraldaketaren arteko loturari ere. 2017an ebaluazioa prestatzea

aurreikusten da, 2018an garatu eta hobekuntzak identifikatzea eta, 2019tik aurrera, praktikan jarri eta hobekuntza-neurri horiek balioestea.

### 3. ildo: Erakunde hezitzailea

GLEAk Gizarte Eraldaketarako Hezkuntzari eginiko ekarpena, Eusko Jaurlaritzaren barruan eta beste erakunde batzuekin

**(H)ABIAN 2030** estrategiak lankidetzako eragile guztien arteko erantzunkidetasuna sustatzen du. **GOLDATU 2017-2020** planaren esparruan, GLEAk GEHren prozesuetan duen eginkizuna bere gain hartu nahi du, oinarrizko hiru jarduketa-ildorekin: (i) bere ekintzak egitea, funtsean komunikazio hezitzaile gisa; (ii) politiken eta GEHren koherentzia sustatzea, Eusko Jaurlaritzako beste sail batzuekin lankidetzan eta koordinazioan; eta (iii) GEHren lanean lankidetzako beste erakunde publiko batzuekiko koordinazioa areagotzea.

Xede nagusia Eusko Jaurlaritzaren barruan politika publikoen koherentzia lortzea da; bidean beharrezkotzat jotzen da beste sail batzuek garatzen dituzten ekintzen lotura eta ezagutzarekin hastea, baterako lan-ildoak edo osagarriak identifikatzea eta lankidetzak horretatik sortu daitezkeen ekintza berriak zehaztea.

GLEAk Giza Eskubide, Bizikidetzak eta Lankidetzaren Idazkaritza Nagusiaren zati bat egiten du eta, ondorioz, baita **GOLDATU 2017-2020** plan hau ere. Hori horrela, agerikoa da Idazkaritza horrekin lanean elkarren osagarri izateko beharra. Gainera, lehentasuna ematen zaio Eusko Jaurlaritzako hiru funtsezko sailen arteko ezagutzari eta lankidetzari: Hezkuntza Saila, Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Saila eta Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Saila. Era berean, Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailak sustatzen duen Euskadiko Gazteak Lankidetzan programa bultzatzen jarraituko da, eta beste sail batzuekin harremanak izango dira aldi berean behin eta horien inguruko informazio esanguratsuen berri emango zaie sektoreko erakundeek. Horiez gainera, hurrengo ekintza-planetan berriz ere ekingo zaio **(H)ABIAN 2030** estrategia eta **GOLDATU 2017-2020** plana diseinatzeko prozesuan parte hartu duten beste sail batzuekiko harremanari eta ekintzak zehazteko ahalegina egingo da.

Beste erakunde publiko batzuekiko koordinazioa dela eta, indarreko ekimenekin jarraitzeaz gainera, gainerako erakundeetan GEHren politika publikoa finkatzen lagundu nahi da eta horiek beren eskumeneko eremuan inplikazio gehiago izan dezaten sustatu nahi da, betiere koordinatuta eta **(H)ABIAN 2030** Gizarte Eraldaketarako Hezkuntza Estrategia berriaren esparruan. Hori horrela, nabarmendu behar da **(H)ABIAN 2030** strategiaren segimendubatzen lan-esparruan erakundeen arteko lan-ekintzak zehaztea aurreikusten dela, esate baterako komunikazio- eta sentsibilizazio-kanpainak. Eta, bestalde, tokiko, Estatuko edo Europako mailan erakundeekin baterako proiektuak eta lana egiteko aukera dago.

#### 3.1. GLEAn GEHren unitatea sortzea, **(H)ABIAN 2030** strategiari eta **GOLDATU 2017-2020** planari jarraipena emateko eta GLEAren beste ekintza batzuekin koherentzia bilatzeko

**GOLDATU 2017-2020** plana abian jarri eta **(H)ABIAN 2030** estrategia garatzeko, GEHren unitatea izan behar da GLEAn, ekintzekin jarraitzeko eta horiei koherentzia emateko ardura izango duena, betiere GLEAren jarduera orokorrarekin bat. Unitatea eratu eta haren osaera eta eginkizunak zehaztu ondoren, unitateak aurrerapenen

berri emango die **GOLDATU 2017-2020** planaren eztabaida- eta jarraipen-taldeari eta egokitzen diren GLEAko kudeaketa-, kontrol- eta partaidetza-organoei.

### **3.2. Komunikazio hezitzaileko ekimenak garatzea**

GLEAk, erakunde hezitzailea den aldetik, biztanleriari lanean dituen errealitateen, egiten dituen ekintzen, mugitzen dituzten balioen eta sustatzen duen politika publikoaren berri emateko gaitasun eta baliabideak garatuko ditu.

Hori dela eta, lehenengo eta behin, webgunearen bidez GLEaren apustu diren ekintza nagusien berri ematea planteatzen da; horrela, agentziarekin lan egiten duten pertsona eta erakundeen artean zabaltzen joango dira.

Paraleloan, GLEAk komunikazio aktiboko kanpainak egitea planteatzen da; horren bidez lortu nahi da funtzionarioek, hasieran, eta herritarrek oro har, ondoren, hezkuntzako eta lankidetzako politika publiko eraldatzailearen inguruan sentsibilizatzeko eta hura ulertzeko informazioa jaso ahal izatea.

### **3.3. Hezkuntza Sailarekin batera lan egitea**

**(H)ABIAN 2030** estrategia prestatzeko prozesuan, sail horretako ordezkarien presentzia eta parte-hartzea izan da. Parapeloan, bilerak egin dira, ekintza horren eduki zehatzak zehazteko.

Egindako analisiaren emaitza gisa, honako jarduketa-aukera hauek identifikatu dira: lehenengo eta behin, **(H)ABIAN 2030** estrategiarekin zerikusia duten sailaren programa eta hezkuntza-baliabideen berri ematea, esaterako, eskola-elkarteko prestakuntza-programen berri, bereziki irakasleentzako prestakuntzaren berri edo berrikuntzako edo trukeko programen berri, esaterako, *'Partekatuz ikasi'*, *'Bikaintasunerantz'*, *'Eleaniztasunerantz'* programen berri. Bigarrenik, GGKEak erakundeen proposamenak onartzeko baldintza bereziak dituzten ikastetxeen sareekin harremanetan jartzea. Hirugarrenik, GEHren balio, proposamen eta ikuspegiaren sustatuko duen baterako programa bereziren bat garatzea. Azkenik, tokiko-global ikuspegitik lantzen ari diren esperientziak ezagutzea, bai Hezkuntza Sailak ematen dituen sariaren esparruan, bai jardunaldi eta jardueretan ikusgai jarritz, besteak beste *Heziketa Topaketan*.

### **3.4. Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailarekin batera lan egitea, zehazki Iraunkortasunerako Hezkuntza Estrategiaren esparruan**

**(H)ABIAN 2030** estrategia diseinatzeko prozesuan, Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailak esku hartu du; saila, aldi berean, bere Iraunkortasunerako Hezkuntza Estrategia prestatzeko prozesuan ari zen (antzeko iraupena zuen).

Bi strategiak garatzeko aldiaren, Garapen Iraunkorreko Helburuak aukera gisa aurkezten dira, baterako lana indartzeko, bai eta lankidetzara hori Gobernuaren beste eremu batzuetara zabaltzeko ere. Hori horrela, bereziki esanguratsua dela uste da GLEAk Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailaren ingurumenaren ikuspegia ezagutzea eta gizarte-dimentsioa eta tokiko-global ikuspegia ezagutzea.

Zehazki, neurri horren barruan hiru ekintza planteatzen dira: GGKEen artean informazioa eta “ingurugelekin” eta ingurumeneko interpretazio-zentroekin lan-aukerak zabaltzea; GGKEen sektorearen eta ingurumen-sektorearen artean trukerako eta aberasteko prestakuntzak egitea; eta GGKEak Sailaren beste programa berezi batzuetan sartzea.

### **3.5. Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Sailarekin eta, zehazki, Landaren eta Itsasertzaren Garapeneko eta Europar Politiketako Zuzendaritzarekin batera lan egitea.**

2015. urtetik, baterako lana egiten ari da Nekazaritzako, Arrantzako eta Elikagai Politikako Sailburuordetzarekin, *Landa Topaketa* izeneko bidez; topaketa horiek lankidetzaren sektoreko erakundeen eta landa-garapenarekin lotura duten erakundeen artean baterako jarduerak egiteko eta elkar ezagutzeko diseinatu dira. Lehen zikloan, lau *Landa Topaketa* egin dira, honako tematika hauen inguruan: landa-garapena eta nekazaritza iraunkorra; emakume nekazarien ahalduntzea; merkaturatzearen erronkak; eta baserritarrentzako prestakuntza-metodologiak eta proposamenak. Kezka berak partekatzen dituzten eta elkar aberastu ditzaketen eremu horien arteko topaketarako espazio horiek ongi balioetsi izan dira; beraz, horiekin jarraitzea planteatzen da, erakunde parte-hartzaileek egokitzen jotzen duten neurrian.

**GOLDATU 2017-2020** planaren esparruan, urtean gutxienez bi *Landa Topaketa* egitea proposatzen da. Horietan, dagoeneko identifikatutako zenbait tematika aztertuko lirake, esaterako: abeltzaintza iraunkorra, ura, produktua eta lurraldea, landa-turismoa... Gainera, paraleloan, baterako lana sustatuko da nekazaritzako prestakuntza-eskolekin, beren prestakuntza-prozesuetan tokiko-global errealitatea eta elikadura-burujabetzaren aldeko lana lotzen dituzten elementuak sartzeko.

### **3.6. Giza Eskubide, Bizikidetzeta eta Lankidetzaren Idazkaritza Nagusiarekin batera lan egitea**

Hasieratik, 2011n, GLEAk Biktimen eta Giza Eskubideen Zuzendaritzarekin lankidetzan jardun du giza eskubideen defendatzaileak aldi baterako babesteko programan. Programa horren bidez, GLEAk giza eskubideen defendatzaile askok, beren erakundeek eta komunitateek bizi duten egoeraren inguruko sentsibilizazioan eta intzidentzian parte hartu du. *3.2. Komunikazio hezitzaileko ekimenen garapena* ekintzan planteatzen denez, GLEAk rol aktiboagoa hartuko du bere gain, herritarrei pertsona eta kolektibo horiek bizi dituzten egoeren berri emateko.

Bestalde, eta nahiz eta hasi den **GOLDATU 2017-2020** planaren identifikazioaren unean, hura garatzeko esparruan Idazkaritza horrek bai derrigorrezko ikaskuntzaren eremuan, bai unibertsitatearen eremuan egiten dituen gizarte- eta hezkuntza-jardueren ezagutzan sakonduko da. Helburua erakunde bakoitzak garatzen dituen programak ezagutzeta eta horien berri ematea da, eta datozen urteotan egiteko egon daitezkeen baterako ildoak eta osagarriak identifikatzea. Zehazki, 2018an Gizalegez akordioan sartuko diren bi programa garatzea aurreikusten da: “mundua eskolara doa”, irakasleentzako prestakuntza-programa; eta “Eskola mundura doa”, ikasleekin lan egiteko heziketa-modulua.

## 4. ildo: Ikaskuntza-kultura

Gizarte Eraldaketarako Hezkuntzari ekarpena egitea, hausnarketaren eta elkarrekiko ikaskuntzaren bidez

GEHren funtsezko alderdi bat da pertsonak eta kolektiboak kontziente izatea gure bizitza osoan zehar etengabeko ikaskuntza-prozesuan gaudela. Ekintzaren eta hausnarketaren arteko eta teoriaren eta praktikaren arteko harreman dialogikoa funtsezkoa da ikaskuntzak eta hobekuntzak sortzeko, pertsonak eta erakundeak sendotzeko, praktiken balioa nabarmendu eta lorpenak ikusarazi eta ospatzeko.

Hausnarketa eta elkarrekiko ikaskuntza prozesu kolektiboetan sortzen da eta, hori dela eta, GEHri buruz eztabaidatzeko eta **GOLDATU 2017-2020** planaren segimendua egiteko taldea sortzea proposatzen da. Era berean, balioen neurketa eta gizarte-partaidetza sustatu nahi dira, **(H)ABIAN 2030** estrategiaren esparruan proposatutako aldaketen segimendua egiteko.

Praktiken bidez kolektiboan hausnartzeko eta elkarrekin ikasteko apustu horrekin bat, ebaluazioa eta sistematizazioa sustatuko dira; zehazki, GLEA bultzatzen aritu den lanaren hiru prozesu esanguratsu ebaluatuko dira.

### 4.1. GEHri buruz eztabaidatzeko eta **GOLDATU 2017-2020** planaren jarraipenerako taldea sortzea

**GOLDATU 2017-2020** planaren jarraipenerako GEHri buruzko eztabaida-taldea izatea GGKEen proposamen bat izan da, **(H)ABIAN 2030** estrategia eta ekintza-plan hau prestatzeko prozesu parte-hartzailean. Talde hori urtean bi aldiz batuko da, gutxienez, eta bi eginkizun esanguratsu izango ditu: lehena, eztabaida eta esperientziei buruzko orientazio- eta proposamen-eginkizuna, topaketarako eta hausnarketarako espazioetan ikusaraziko dena; eta, bestea, operatiboagoa, ekintza-planaren jardueren segimenduari buruzkoa.

### 4.2. **(H)ABIAN 2030** strategiaren eta **GOLDATU 2017-2020** planaren segimendurako balioak eta gizarte-partaidetza neurtzea

GEHren eremuan, funtsezkoa da gizarteak zenbait gairen inguruan izan duen bilakaera aztertzea. Beraz, zenbait erakunde publikok (Eustat, Euskobarometro, Ikuspegi, Gazteen Behatokia, Emakunde...) baliatutako azterlan eta adierazleak ezagutzea eta aztertzea proposatzen da; izan ere, sortu ahal izan diren aldaketak ezagutzeko iturri baliagarria izan daitezke, erabakiak hartzean eta GEHren eremuan proposamenak egitean gidari-lanak egiteko.

### 4.3. Ebaluazioa eta sistematizazioa sustatzea

Ikaskuntzarako funtsezko elementuetako bat ebaluazioak eta sistematizazioak egitea da. Hori horrela, aurretik aipatu denez, ekintza-plan honen esparruan aurreikusitako ekintzetako bat Euskadiko Gazteak Lankidetzan programaren ebaluazioa da.

Era berean, duela denbora asko garatzen ari diren prozesuen beste bi ebaluazio egitea proposatzen da: bat, gizarte-eraldaketarako komunikazio-esperientziei buruzkoa, eta, bestea, ikerketa, mobilizazioa eta intzidentzia lotzen dituzten esperientziei buruzkoa. Gainera, GLEAk finantzatutako ebaluazioek horietan sortutako ikaskuntzen inguruko galdera bat izatea proposatzen da, aintzat hartuta



ikaskuntza horiek hezkuntza-jardunbideak hobetzen lagundu dezaketela, GEHren beraren ikuspegiak sartuz.

### 3. Bitartekoak eta baliabideak

**(H)ABIAN 2030** estrategiaren helburuak lortzea ez da posible izango, baldin eta hura garatzen duten planak ezartzeko behar diren bitarteko eta baliabideak konprometitzen ez badira. GLEAren kasuan eta **GOLDATU 2017-2020** plana abian izateko, giza baliabideen eta aurrekontu-baliabideen inguruko konpromisoak honako hauek dira:

GLEA gizarte-eraldaketarako hezkuntzaren eremuan garatzen ari zen eginkizunez gainera, **GOLDATU 2017-2020** planean aurreikusitako 14 ildoek, baliabide ekonomikoak handitzea barik, langileen dedikazio handiagoa eskatzen dute, bereziki honako erronka hauei heltzeko:

- Erakunde hezitzailea: Eusko Jaurlaritzako sailekin baterako lana egitea eta planaren jarraipen-jarduerak.
- **(H)ABIAN 2030** estrategia zabaltzea: lankidetzako erakunde publikoen, GGKEen eta beste gizarte-erakunde batzuen estrategian sar dadin sustatzea, bai eta beste kolektibo batzuen ere, esaterako, eskola-sareen eta hezkuntza ez-formaleko sareen estrategian.
- Tresnak: GLEAren GEHren egungo tresnak **(H)ABIAN 2030** strategiaren eta **GOLDATU 2017-2020** planaren apustuetara egokitzea.

Horretarako, GLEAk konpromisoa hartzen du bi lanaldiren denbora ekintza-plan horretan aurreikusitako ekintzak abiaraztera dedikatzeko. Dedikazio handiagoa izateko baldintzarik egon ezean, ekintza-plana berrikusi beharko da, aurreikusitako ekintza batzuk lehenetsi eta beste batzuk baztertzeko.

Baliabide ekonomikoak direla eta, ekintza-plan honen aldiari indarrean dauden plan gidarrietan ezarritako aurreikuspenak hartuko dira aintzat eta % 10eko gutxienezko barmatuko da. Urtero, GEHri ekarpena egiten dioten ekimenen berri emango da, tresna guztiak barne, bai eta jardunaldiak, ebaluazioak edo horretara bideratzen diren beste gastu batzuk ere.

### 4. Jarraipena

**GOLDATU 2017-2020** planaren jarraipenerako proposatutako adierazleak bi taldetan banatzen dira: lehena aurreikusitako 15 ekintzekin lotzen da eta, bigarrena, ekintza-planarekin, oro har, **(H)ABIAN 2030** estrategian proposatutako alaketetan egiten duen ekarpenarekin. Planaren ekintzen adierazleen jarraipena bi urtean behin egingo da, eta plan orokorrarena haren amaieran. **GEHri buruz eztabaidatzeko eta GOLDATU 2017-2020 planaren jarraipenerako taldeak** egingo du adierazleen aurrerapenaren segimendua eta zabalkundea.

## 4.1. Bi urtez behingo jarraipenaren adierazleak

Adierazle horien bidez, proposamenetako batzuk egokitzen joateko eta etorkizuneko planetan erronka zehatzak ezartzeko oinarriko ildo argia prestatu ahalko dugu. Hori horrela, nabarmendu behar da planean adierazleetako batzuk aurkeztutako ekimenen baremazioetatik ateratako datuetan oinarrituta eskuratu direla. Eta, era berean, etorkizuneko planetan amaierako txostenetatik eskuratutako informazioa ere sartuko litzatekeela aurreikusten da.



ILDOAK	AZPIILDOAK	ADIERAZLEAK
<p><b>1. ildoak. Ekintzarako prestakuntza</b></p>	<p><b>1.1. Prestakuntzarako eta gaitasunak sortzeko ekimenak bultzatzea</b></p> <p><b>1.2. Ahalduentzeko estrategia positiboen jardunaldiak</b></p> <p><b>1.3. Heziketa Topaketa</b></p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• GEHren jarduera guztien gainean eginiko ekintzarako prestakuntzako ekimenen ehunekoak.</li> <li>• GEHra bideratutako funts guztien gainean ekintzarako prestakuntzara bideratutako ehunekoak.</li> <li>• Eragile tradizionalekin batera (GGKE, eskola-elkarteak eta aisialdiko elkarteak) gauzatutako finantzapeko ekintzetarako prestakuntza-ekimenen ehunekoak, eragile ez-tradizionalekin batera gauzatutako finantzapeko ekintzetarako prestakuntza-ekimen guztien eta horien ehunekoaren gainean.</li> <li>• EAEn nagusiki bultzatu diren ekintzarako prestakuntza-ekimenen ehunekoak eta EAEtik kanpokoen ehunekoak.</li> <li>• GEHren ikuspegi politiko-pedagogikoetatik garatu diren ekintzarako prestakuntza-ekimenen ehunekoak.</li> <li>• Tokiko-global ikuspegia duten ekintzarako prestakuntza-ekimenen ehunekoak.</li> <li>• Giza eskubideen ikuspegia duten ekintzarako prestakuntza-ekimenen ehunekoak.</li> <li>• Eztabaida eta hausnarketa kolektiborako espazioak sortu dituzten ekintzarako prestakuntza-esperientzien ehunekoak.</li> <li>• Ekintza zehatz indibidualak eta/edo kolektiboak proposatzen dituzten ekintzarako prestakuntza-ekimenen ehunekoak.</li> <li>• Ahalduentzeko estrategia positiboen jardunaldietan parte hartu duten pertsonen eginiko balioespena, estrategia horiek ohitura-aldaketaren bidez, ekintza berriak eginez eta erakunde berriekiko harremanen bidez ekintzara jotzeko tresnak eta baliabideak ematean egin duten ekarpenari buruz.</li> <li>• Ahalduentzeko estrategia positiboen jardunaldietan parte hartzen duten</li> </ul>

GGKEez bestelako kolektiboen kopurua.

- Heziketa Topaketetako parte-hartzaileek horiek emandako elementuen inguruan eginiko balioespena, metodologikoki beren proposamenetan sartzeko.
- Espazio horietatik abiatuta sortutako ekimen berrien kopurua eta zerrendaketa.

## **2. ildo. Ekintza eraldatzaileak**

### **2.1. Mobilizazioko, intzidentziako, ikerketako, salaketako eta komunikazioko ekimenak bultzatzea**

### **2.2. Tokiko presentzia eta globala duten mobilizazioko eta intzidentziako ekimenak bultzatzea**

### **2.3. Euskadiko Gazteak Lankidetzan programaren ekintzara hobeto bideratzea**

- GEHren jarduera guztien gainean eginiko mobilizazioko, intzidentziako, ikerketako, salaketako eta komunikazioko ekimenen ehunekoa
- GEHren bideratutako funts guztien gainean mobilizazioko, intzidentziako, ikerketako, salaketako eta komunikazioko ekimenetara bideratutakoen ehunekoa.
- GEHko eragile tradizionalekin (GGKE, eskola-elkarteak eta aisialdiko elkarteak) eta ez-tradizionalekin gauzatutako mobilizazioko, intzidentziako, ikerketako, salaketako eta komunikazioko ekimenen ehunekoa.
- GEHren ikuspegi politiko-pedagogikoetatik garatu diren mobilizazioko, intzidentziako, ikerketako, salaketako eta komunikazioko ekimenen ehunekoa.
- Tokiko-global ikuspegia duten mobilizazioko, intzidentziako, ikerketako, salaketako eta komunikazioko ekimenen ehunekoa.
- Giza eskubideen ikuspegia duten mobilizazioko, intzidentziako, ikerketako, salaketako eta komunikazioko ekimenen ehunekoa.
- Inplikazio indibidualeko eta/edo kolektiboko aukera zehatzak proposatu dituzten mobilizazioko, intzidentziako, ikerketako, salaketako eta komunikazioko ekimenen ehunekoa.
- EAetik kanpora eta/edo EAEn bultzatu diren mobilizazioko, intzidentziako, ikerketako, salaketako eta komunikazioko ekimenen ehunekoa.
- Kulturen arteko eskumenen eta ekintzaren inplikazioaren inguruan Euskadiko Gazteak Lankidetzan programan sartu diren hobekuntza-proposamenen kopurua.

### **3. ildo. Erakunde hezitzailea**

**3.1. GLEAn GEHren unitatea sortzea, (H)ABIAN 2030 estrategiari eta GOLDATU 2017-2020 planari jarraipena emateko eta GLEaren beste ekintza batzuekin koherentzia bilatzeko**

**3.2. Komunikazio hezitzaileko ekimenak garatzea**

**3.3. Hezkuntzan eskumena duen sailarekin batera lan egitea**

**3.4. Ingurumenaren inguruko eta, zehazki, iraunkortasunaren estrategiaren inguruko ardura duen sailarekin batera lan egitea**

**3.5. Landa-garapenaren ardura duen sailarekin batera lan egitea**

**3.6. Giza Eskubide, Bizikidetzaren Idazkaritza Nagusiarekin batera lan egitea**

- Euskadiko Gazteak Lankidetzan programako parte-hartzaileen gogobetetasun-maila, programak kulturen arteko topaketari bide emateko eginiko ekarpenaren eta ekintzarako inplikazioaren aukerei buruzko informazioaren inguruan.
- Gizarte-mugimenduek GLEarekin lotura duten GEHko beste eragile batzuekin batera sustatutako mobilizazio-ekimenen kopurua: zer mugimendu eta zer inplikazio-maila.

- Eusko Jaurlaritzako funtzionarioei zuzendutako komunikazio-kanpainaren ostean elkarreaginean diharduen pertsona-kopurua.
- GEHrekin zerikusia duten gaien inguruko bisita-kopurua webgunean.
- Eusko Jaurlaritzako zenbait sailekin lotura duten eragileen arteko trukeak egiteko topaketa-kopurua (Hezkuntza, Ingurumena, Landa Garapena eta Giza Eskubide, Bizikidetzaren Idazkaritza Nagusia).
- Sailekin eginiko trukeerako topaketetako parte-hartzaile eta antolatzaileek baterako lanaren aukerak sendotzeko mailaren inguruan eginiko balioespena.
- Eusko Jaurlaritzako sailekiko baterako ekimenen kopurua eta zerrendaketa (Hezkuntza, Ingurumena, Landa Garapena eta Giza Eskubide, Bizikidetzaren Idazkaritza Nagusia).
- Antolatzaileek/dinamizatzaileek baterako ekimenen inguruan eginiko balioespena.

#### 4. ildo. Ikaskuntza-kultura

**4.1. GEHri buruz eztabaidatzeko taldea sortu eta urteko planaren jarraipena egitea**


**4.2. (H)ABIAN 2030 eta GOLDATU 2017-2020erako jarraipenerako balioak eta gizarte-partaidetza neurtzea**

**4.3. Ebaluazioa eta sistematizazioa sustatzea**

- **GOLDATU 2017-2020** planaren esparruan eginiko eztabaida- eta jarraipen-taldearen proposamenen ehunekoak.
- Eztabaida-taldeak sortutako eta **GOLDATU 2017-2020** plana gauzatzean sartutako ikaskuntzak.
- **GOLDATU 2017-2020** planaren jarraipena egiteko identifikatutako edo proposatutako adierazle orokor berriak.
- Erakundeek eta GLEAk eginiko ebaluazio-kopurua.
- Ebaluazioetan GEHren beraren ikuspegiekin koherenteak diren prozedurekin jardunbidea hobetzeko sortutako ikaskuntzen kopurua eta zerrendaketa.
- Hezkuntza-jardunbideak hobetzeko eztabaida eta truke kolektiboen kopurua.
- Hezkuntza-jardunbideak hobetzeko eztabaida eta truke kolektiboen balioespena.

## 4.2. GOLDATU 2017-2020 planaren adierazle orokorrak

(H)ABIAN 2030 estrategia garapenean sortuko diren aldaketak identifikatzen dituen esparrua da. **GOLDATU 2017-2020** planaren bidez, aldaketa horietan ekarpena egin nahi da. (H)ABIAN 2030 strategiako adierazleak ezarri ahala, **GOLDATU 2017-2020** planaren ekarpena izango dutenak identifikatuko dira eta **GOLDATU 2017-2020** planaren amaierako ebaluazioan erabiliko dira.



# 1. eranskina: Kronograma

ILDOAK	2017	2018	2019	2020
<b>1. ildo. Ekintzarako prestakuntza</b>				
<b>1.1. Prestakuntzarako eta gaitasunak sortzeko ekimenak bultzatzea</b>	Deialdiak abiaraztea, jardueren baremazioa eta jarraipena egitea Baremazioaren inguruko aurretiko lana Datu-basea, eta, bertan, adierazleetakoko batzuk jasotzea	<b>Jarraipena</b> Baremazio berria	<b>Jarraipena</b>	<b>Jarraipena</b>
<b>1.2. Ahalduntzeko estrategia positiboan jardunaldiak</b>		Ardatz honetan lan egingo da: Erakundeetatik giza eskubideen defendatzaileei laguntza emateko estrategiak eta ikusarazteko sareak		Proposamenaren arabera, honako ardatz honen gainean lan egingo da: Emakumeen aurkako indarkeria – ahalduntzeko estrategiak
<b>1.3. Heziketa Topaketa</b>	Ardatz honetan lan egingo da: baterako hezkuntzako metodolofiak	Ardatz honetan lan egingo da: metodologia berritzaileak/parte-hartzaileak	Ardatz honetan lan egingo da: metodologia komunikatzaileak/ikerketa-mobilizazioa	Ardatz honetan lan egingo da: pedagogia kritiko feministak
<b>2. ildo. Ekintza eraldatzaileak</b>				
<b>2.1. Mobilizazioko, intzidentziako, ikerketako, salaketako eta komunikazioko ekimenak bultzatzea</b>	Deialdiak abiaraztea, jardueren baremazioa eta jarraipena egitea Baremazioaren inguruko aurretiko lana Datu-basea, eta, bertan, adierazleetakoko batzuk jasotzea	<b>Jarraipena</b> Baremazio berria	<b>Jarraipena</b>	<b>Jarraipena</b>

<p><b>2.2. Tokiko presentzia eta globala duten mobilizazioko eta intzidentziako ekimenak bultzatzea</b></p>		<p>Bultzatutako ekimenen analisia eta horien segimendua</p>	<p><b>Jarraipena</b> eta ekimenak beste eragile batzuekin lotzea</p>	<p><b>Jarraipena</b> Bultzatutako ekimenen analisia eta horien segimendua</p>
<p><b>2.3. Euskadiko Gazteak Lankidetzan programaren ekintzara hobeto bideratzea</b></p>	<p>Ebaluazioaren erreferentziazko terminoetan programako arduradunekin lan egitea.</p>	<p>Ebaluazioa egitea eta proposatutako hobekuntzak lehenestea.</p>	<p>Ebaluazioan eskuratutako hobekuntzak sartzea, prestakuntza ekintzarekin eta kulturartekotasunarekin lotzeko</p>	<p>Hobekuntzak praktikan jartzea</p>
<p><b>3. Ildoa. Erakunde hezitzailea</b></p>				
<p><b>3.1. GLEAn GEHren unitatea sortzea, (H)ABIAN 2030 estrategiari eta GOLDATU 2017-2020 planari jarraipena emateko eta GLEAren beste ekintza batzuekin koherentzia bilatzeko</b></p>	<p>GEHren unitatea zehaztu, eratu eta abiaraztea</p>	<p><b>Jarraipena</b> Bi bilera orokor taldearekin GEHren unitatearen bilerak Bi urtean behin ebaluazioa egitea eta GLEAri eta <b>(H)ABIAN 2030</b> planaren segimendu-taldeari horren berri ematea.</p>	<p><b>Jarraipena</b></p>	<p><b>Jarraipena</b> Bi urtean behin ebaluazioa egitea eta GLEAri eta <b>(H)ABIAN 2030</b> planaren segimendu-taldeari horren berri ematea.</p>
<p><b>3.2. Komunikazio hezitzaileko ekimenak garatzea</b></p>	<p>-</p>	<p><b>Jarraipena</b> GLEAren webgunearen bidez honako hauek zabaltzea: - Ekintzei buruzko informazioa - GLEAk eskatutako ebaluazio zehatzak Giza eskubideak babesteko programan parte hartzen duten pertsonen testuinguruei eta beren errealitatei buruzko</p>	<p><b>Jarraipena</b> GLEAren webgunearen bidez GEHri buruzko jardunbide egokiak eta ikaskuntzak zabaltzea GLEA bisitatzen duen jendeari buruzko informazioa ematea, bilerak egin ondoren.</p>	<p><b>Jarraipena</b> Formatu artistikoagoetan iritzi publikorako kanpaina berezia gauzatzea (beste erakunde batzuekin batera egin daiteke).</p>



		informazioa Sentsibilizazio-kanpaina funtzionarioentzat (zabalik beste erakunde publiko batzuekin egiteko)		
<b>3.3. Hezkuntza Sailarekin batera lan egitea</b>	Hezkuntza Sailarekin koordinatzea. Heziketa Topaketa	<b>Jarraipena</b> Honako hauekin informazioa eta ekintza-aukerak bideratzea: - Hauspoa sarea - Prest-gara - Hezkuntzako Programak	<b>Jarraipena</b> Hezkuntza Sailarekin programa zehatzen bat garatzea	<b>Jarraipena</b> Tokiko-global kategoria sustatzea Hezkuntza Sailaren sarien esparruan
<b>3.4. Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailarekin batera lan egitea, zehazki Iraunkortasunerako Hezkuntza Estrategiaren esparruan</b>	Batera lan egiteko aukerak aztertzea	<b>Jarraipena</b> Laguntza-proposamenak ezagutzea GIHen Agenda 2030en inguruko koordinazioa - Ingurugelekin (Ingurumen Hezkuntzarako laguntza-sarea) jarduerak eta baliabideak koordinatzea - GLEAri eta gainerako eragileei iraunkortasunari buruzko prestakuntzarako bide ematea	<b>Koordinazioaren jarraipena</b> - Ingurumen-interpretazioko zentroekin koordinatzea  -GEHko eragileek gizarte-arloarekiko eta tokiko-globalarekiko loturei buruz sustatutako prestakuntzarako bide ematea Ingurugeletako eta interpretazio-zentroetako hezitzaileei	<b>Koordinazioaren jarraipena</b> Sailaren programa berezi batzuk (esaterako, Aztertu) GEHko eragileek sustatutako ekimenekin lotzea
<b>3.5. Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Sailarekin eta, zehazki, Landaren eta Itsasertzaren Garapeneko eta Europar Politiketako Zuzendaritzarekin batera</b>	Urtean gutxienezko 2 Landa Topaketa antolatzea	<b>Jarraipena</b> Laguntza-proposamenak ezagutzea	<b>Jarraipena</b> Nekazaritzako prestakuntza-eskolekin lan egitea, tokiko-global ikuspegia sartzeko	<b>Jarraipena</b>

lan egitea				
3.6. Baterako lana Giza Eskubide, Bizikidetzeta eta Lankidetzaren Idazkaritza Nagusiarekin		Sektoreko erakundeei Sailaren gizarte- eta hezkuntza-programen eta akordioen berri eman eta zabaltzea	Batera egin daitezkeen ekintzak identifikatzea	Ekintza osagarriak eta baterakoak abiaraztea
<b>4. ildo. Ikaskuntza-kultura</b>				
4.1. GEHri buruz eztabaidatzeko eta GOLDATU 2017-2020 planaren jarraipena egiteko taldea		<b>Jarraipena</b> Taldea sortu eta abiaraztea. Urtean bi bilera gutxienez.	<b>Jarraipena</b>	<b>Jarraipena</b>
4.2. (H)ABIAN 2030 eta GOLDATU 2017-2020rako jarraipenerako balioak eta gizarte-partaidetza neurtzea	Euskobarometroak egiten dituen azterlanak ezagutu, erabili eta, egokia bada, adierazleak proposatzea	Eustatek (Euskal Estatistika Erakundea) eta Ikuspegik (Immigrazioaren Behatokia) egiten dituzten azterlanak ezagutu, erabili eta, egokia bada, adierazleak proposatzea	Gazteen Behatokiak egiten dituen azterlanak ezagutu, erabili eta, egokia bada, adierazleak proposatzea	Emakundek egiten dituen azterlanak ezagutu, erabili eta, egokia bada, adierazleak proposatzea
4.3. Ebaluazioa eta sistematizazioa sustatzea	EGL programaren 25 urteen ebaluazioaren erreferentziazko terminoak sortzea (kulturen arteko gaitasunak, ekintzarako partaidetza)	EGLren ebaluazioa eta komunikazio-esperientzien ebaluazioa egitea		Ikerketako eta intzidentziako esperientzien ebaluazioa egitea